

INGURUGIROKO ADIERAZPENA

Historian zehar gizakiaren garapena ingurunea eraldatzetik etorri da. Alabaina, eraldaketa horrek ez du, historian zehar, planetaren eraldaketa eragin, esan liteke ingurunearekin armonian bizi zela, edo planetak eraldaketa horiek jasateko gaitasuna zuela. Dena dela, eta XIX. Mendetik aurrera, gizakiaren garapenak hazkunde izugarria lortu du, aurreko 5.000 urteetan lortu dena baino askoz handiagoa 200 urtetan. Alabaina, garapen hori Lurrak dituen baliabideen lepotik joan da. Egun klimaren aldaketa bera, biodibertsitatearen aldaketa, populazioen migrazio-mugimenduak ... denak garapen aseeginaren biktima dira.

Hori guztia dela eta, dagoeneko ekidinezinak izango diren aldaketak datoz, eta aldaketa horien ondoriozko lazgarrienak arintzeko ahaleginak egin behar ditugu. Bide horretan dihardute Nazioarteko Erakundeek eta nazioetako administrazio zenbaitek. Ildo horretan Harrobia Ikastolak ere 1992an Rio de Janeiron egindako deklarazioarekin bat egin nahi du eta bertan adierazten diren puntu hauek lantzeko konpromisoa ere bere egiten du:

- Gizakiak garapen osasuntsua eta bizimodu produktiboa uztartuko baditu, naturarekin armonian egin beharko du (Rioko aldarrikapenaren 1. Printzipioa)
- Garapenak aintzat hartu behar ditu oraingo eta etorkizuneko belaunaldietako beharrak, bai garapenari dagozkionak, bai ingurugiroari dagozkionak (Rioko deklarazioaren 3. Printzipioa)
- Pertsona orok ulertu behar du pobreziaarekin amaitzea ezinbestekoa dela garapen jasagarriaren baitan (5. Printzipioa)
- Hiritar guztiek behar besteko informazioa jaso beharko dute ingurugiroan dauden arazoaren gainean, baita gai horretan erabakiak hartzeko gaitasuna eduki ere (10. Printzipioa).
- Emakumeen rola ingurugiroaren kudeaketan arras garrantzitsua da, eta beraien partaidetza ezinbestekoa garapen jasagarria lortzeko ahaleginean (20. Printzipioa).
- Gazteen engaiamenduak ere garapen jasagarrian lagunduko du, beraien sormena, idealak eta ausardia aintzat hartzen bada (21. Printzipioa).
- Indigenen komunitateek ere partaidetza aktiboa izan behar dute garapen jasagarrian, eta estatuek beraien existentzia aintzatetsi behar dute (22. Printzipioa)
- Zapalduta bizi den jendearen ingurugiroa eta beraien baliabide naturalak babestu behar dira (23. Printzipioa).
- Bakea, garapena eta ingurugiroaren babesa banaezinak dira eta elkarren mendekoak (25. Printzipioa).

Gauza hauengatik guztiengatik , Harrobia ikastolak, Rioko deklarazioarekin eta ondoren letozkeenekin bat etorriz, jasagarritasuna suspertzeko inizatibak abiatzeko asmoa agertu nahi du; horretarako gaia lantzen duten egitasmoetan parte hartuz..

Bilbon, 2017ko urriaren 26an.



Fernando Garrigós Gabilondo
Harrobia - Zuzendaria

